



AGINDUA, INGURUMEN, LURRALDE-PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE-ANTOLAMENDUAREN GIDALERROAK BEHIN-BEHINEAN ONARTZEN DITUENA.

1. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko otsailaren 20ko Aginduaren bitartez eman zitzaion hasierako onespina otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduaren gidalerroak berrikusteko dokumentuari, eta baita dokumentu hori jendaurreko informazioaren izapidean jartzeari eta lurraldeko administrazio publiko interesdunen entzunaldian jartzeari, 2 hilabeteko epean zehar. Jendaurreko informazioaren izapidea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta BOEn iragarkiak argitaratuta gauzatu zen, 2018ko otsailaren 28an; *El Correo*, *El Diario Vasco* eta *Berria* egunkarietan ere argitaratu zen.

2. Bestetik, aipatutako aginduak jendaurreko informazioaren izapidean ezarri zuen lurralde-antolamenduaren gidalerroen ingurumen-azterlan estrategikoa, eta aurrez kontsultatutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin zitzaion 45 egun balioduneko epean.

3. Jendaurreko informazioaren izapide horretan 49 idazki jaso dira alegazio, ohar eta iradokizunekin, bai lurraldeko administrazio publikoen eskutik, bai norbanakoen eskutik, eta bai erakunde publiko eta pribatu desberdinen eskutik; hemen zerrendatzen dira:

1. Bizkaiko Foru Aldundia - Kultura Ondarearen Zerbitzua
2. Eusko Jaurlaritza - Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
3. Gasteizko Udala
4. Eusko Jaurlaritza - Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Arabako Zuzendariordetza
5. Eusko Jaurlaritza - Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Gipuzkoako Zuzendariordetza
6. ELA Sindikatua
7. Eusko Jaurlaritza - Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Bizkaiko Zuzendariordetza
8. Equo Berdeak
9. Iruña Okako Udala
10. Baskegur
11. Turtziozko Udala
12. Eusko Jaurlaritza- Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza
13. Eudel
14. EH Bildu Legebiltzarreko taldea
15. Bernedoko Udala
16. Ametsak Sortzen Elkartea-Comunidad Cohousing
17. Áridos Siderúrgicos Ekober
18. Arabako Foru Aldundia - Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza
19. Getxoko Udala
20. Eusko Jaurlaritza - Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
21. Bizkaiko Foru Aldundia - Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila



22. Lasarte-Oriako Udala
23. Karrantzako Udala
24. Vanesa García Eraña
25. UEMA
26. Gordexolako Udala
27. Gipuzkoako Foru Aldundia - Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Saila
28. Bide, Ubide eta Portuetako Elkargoa
29. ENBA - Euskal Nekazarien Batasuna
30. Tolosako Udala
31. Zaratamoko Udala
32. Bizkaiko Foru Aldundia - Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
33. Santurtzikiko Udala
34. Gobernuak EAEn duen ordezkari-tza
35. Bilboko Portu Agintaritz-a
36. Sukarrietako Udala
37. Arabako Errioxako Kuadrilla
38. Bakioko Udala
39. Eako Udala
40. Zaldibarko Udala
41. Bizkaiko Foru Aldundia - Nekazaritza Zuzendaritzako Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
42. Eusko Jaurlaritza - Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza
43. Arrasateko Udala
44. Eudel
45. URA - Uraren Euskal Agentzia
46. Gipuzkoako Foru Aldundia - Ingurumen Zuzendaritza Nagusia
47. Eusko Jaurlaritza - Urdaibaiko Biosfera Erreserba
48. EHAEO - Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
49. EAEko Errepideen Plan Orokorren Batzordea

4.- 2016ko maiatzaren 18ko bilkuran, lurralde-antolamenduaren gidalerroak berrikusteko oinarritzko dokumentua aztertu zuten Naturzaintza-Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Kontseiluak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Batzordeak, eta 2017ko ekainaren 21ean txostena igorri zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Garraio Agintaritzak.

5.- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduaren gidalerroen tramitazioan txosten hauek igorri dira:

- Estatuko Portuen Erakunde Publikoaren txostena, 2014ko azaroaren 3koa.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren txostena, 2014ko azaroaren 18koa.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiaren txostena, zaratari buruzkoa, 2016ko abenduaren 22koa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritzaren txostena, zortasun akustikoei buruzkoa, 2017ko urtarrilaren 2koa.
- Informazioaren Telekomunikazio eta Teknologien Zuzendaritza Nagusiaren txostena, 2017ko urtarrilaren 11koa.
- Hegazkintza Zibileko Zuzendaritza Orokorren txostena, 2017ko apirilaren 24koa.
- Hezkuntza Ministerioaren txostena, 2017ko martxoaren 3koa.



- Sustapen Ministerioko Errepideen Zuzendaritza Nagusiaren txostena, 2017ko martxoaren 16koa.
- Kostaldearen eta Itsasoaren Jasangarritasuneko Zuzendaritza Nagusiaren txostena, 2017ko maiatzaren 17koa.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren txostena, 2017ko azaroaren 8koa.
- Sustapen Ministerioaren txostena, trenbideetako azpiegiturei buruzkoa, 2017ko azaroaren 28koa.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuaren txostena, 2018ko ekainaren 1ekoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorren Batzordearen txostena, 2018ko ekainaren 28koa.
- URA - Uraren Euskal Agentziaren txostena, 2018ko azaroaren 6koa.

6.- Zenbait koordinazio- eta partaidetza-batzar ere izan dira bai Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin, bai hiru foru-aldundiekin, bai EUDELEkin eta bai EAEko hainbat udalekin; horien ondorioz, aukera eman da Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduaren gidalerroen dokumentuan hobekuntzak egiteko.

7.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, bere aldetik, 4/2018 osoko bilkuran, eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikako Aholku Batzordeak, 2/2018 bilkuran, biak azaroaren 14ean izan zirenak, aldeko txostena eman diete EAEko lurralde-antolamenduaren gidalerroei, behin-behinean onartu baino lehen.

8.- Formulaturako alegazio, ohar eta iradokizun guztiak aztertu dira, eta horiei dagokien alegazio-txostena igorri da. Gainera, espedienteari dagozkion txostenen edukira egokitu da dokumentu teknikoa. Azkenik, aipaturako alegazio eta txostenak aztertu ondoren, behar diren zenbait zuzenketa tekniko ere egin dira dokumentu teknikoan. Guzti hori aldaketen eranskinean jaso da, agindu honi atxikita doana.

9.- Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren 2018ko azaroaren 13ko ebazpenaren bitartez formulatu zen EAEko lurralde-antolamenduaren gidalerroak berrikusteko ingurumen-adierazpen estrategikoa.

10.- EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 10.8. artikuluan xedatutakoaren arabera, egokia da behin-behineko onarpena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei.

Aplikatu beharreko legeria aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin-behinean onartzea, agindu honetako eranskinean aipaturako aldaketekin, eta ondoren gobernu-kontseiluan aurkeztea, behin betiko onartzeko.

Erabaki hau ezin da errekurritu, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onartzeko prozeduraren barruko izapide bat baita.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua

Iñaki Arriola Lopez



ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDUAREN GIDALERROETAN SARTUTAKO ALDAKETAK, FORMULATUTAKO ALEGAZIOEN ANALISI ETA BALORAZIOAREN, HORIEI DAGOZKIEN TXOSTENEN ETA DOIKUNTZA TEKNIKOEN ONDORIOZKOAK

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak


Aurkibidea	Egindako aldaketa
I. Memoria	
1 Berrikuspenaren esparrua	
1.3 1997ko LAGetatik berrikuspenera: ziklo baten diagnostikoa eta balantzea	«IX. LURRALDEAREN ARLOKO PLANAK» apartatuaren azken lerrokadan, «funtzionamendu» hitzaren ondoren «interkonexio» gehitu da: ...haien funtzionamenduen eta <i>interkonexioaren</i> ebaluazio bat egin nahi da...
1.4 Inguruabar sozioekonomikoa, lurralde-ingurunea eta klima-aldaketa	Lerrokada berri bat gehitu zaio apartatuaren aurkezpen-koadroari: <i>Klima-aldaketak lurraldearen, biztanleriaren, natura-ingurunearen eta jarduera sozioekonomikoen gaineko eraginak okerragotuko ditu, bereziki itsasoaren mailaren igoerari, prezipitazioen erregimenaren aldaketari eta tenperatura, uholde eta bero-boladei dagokienez.</i> lhobek egindako ekarpenaren ondorioz, aldatu egin da «IV. KLIMA-ALDAKETA» puntua, eta honela geldituko da aurrerantzean: IV. KLIMA-ALDAKETA <i>Gidalerroen eskalaren arabera lurralde-antolamenduari dagokion egokitze-kudeaketaren testuinguruan, klima-aldaketari aurre egiteak lurralde- eta hirigintza-agirietan dituen ondorioak jasota geratu behar dira.</i> <i>Klima-aldaketak lurraldean izan ditzakeen ondorioak argi zehaztu ezin daitezkeenez, «Klima 2050. 2050erako klima-aldaketaren Euskadiko estrategia» lanak Euskadiko klimaren bilakaera eta zaurgarritasuna jasotzen ditu.</i> <i>Eusko Jaurlaritzak sustatutako zenbait ekimen klima-aldaketak lurraldean izango dituen eraginak ezaugarritzen ari dira; horien artean, «Klima-aldaketaren bereizmen handiko eskualdeko agertokiak Euskadirako» lanean jasotzen diren analisiek, 2100. urtera arteko proiektzio klimatikoak lortu dituzte Klima Aldaketari Buruzko Gobernuarteko Taldeko bosgarren txosteneko gidalerroei jarraikiz.</i> Euriteak <i>XXI. mendearen amaierarako urteko batez besteko prezipitazioek Euskadin % 15 inguru behera egingo dutela aurreikusten da, eta joera hori nabarmenagoa izango da udaberrian eta EAEko hegoalde eta hego-mendebaldean. Muturreko prezipitazioek % 30eko hazkundera izatea aurreikusten da, eta lehorte-aldi luzeak gertatzea horien ondoren. Bestalde, murriztera joko luke prezipitazio leuneko</i>

egunen kopuruak; aldiz, gora egingo lukete euri-egun bakoitzak batez beste ekarritako ur kantitateak, euri-egun batean metatutako gehieneko prezipitazioak, eta ondoz ondoko egun lehorren kopuruak».

Temperaturak

Temperaturaren datu historikoek, hiru hiriburuen inguruan jasoak, goranzko joera erakusten dute. 1995-2014 aldiko hemeretzi urteak izan dira beroenak lurrazaleko temperaturaren erregistro instrumentaletan (2010. urtea kenduta) eta Euskadiko batez besteko temperatura 2000-2014 aldian $0,8\text{ }^{\circ}\text{C}$ handiagoa izan da 1971-2000 aldian baino. Mendearen amaierarako $1,5\text{ }^{\circ}\text{C}$ eta $5\text{ }^{\circ}\text{C}$ arteko urteko batez besteko temperaturaren igoera aurreikusten da kontuan hartutako berotegi-efektuko gasen emisioen arabera; igoera nabarmenagoa izango da isurialde mediterraneoan.

$1,5\text{ }^{\circ}\text{C}$ eta $5\text{ }^{\circ}\text{C}$ arteko temperaturaren urteko batez besteko igoera 2100. urterako. Urteko batez besteko temperaturaren bariazioaren portzentajea EAEn



Iturria: Eusko Jaurlaritza

2. irudiak 1971-2000 erreferentzia-aldiarekiko urteko batez besteko temperaturaren bilakaera erakusten du.

Legenda: Marra gorria: aztertutako datu historikoen batezbestekoa; Marra beltz etena: berotegi-efektuko gasen emisioen RCP4.5 batezbesteko mailako egoera baterako proiektzioen batezbestekoa; Marra beltz jarraitua: berotegi-efektuko gasen emisioen RCP8.5 maila oso altuko egoera baterako proiektzioen batezbestekoa; Marradura gris iluna: RCP4.5 egoeraren dispersioa; Marradura gris argia: RCP8.5 egoeraren dispersioa.

Mende amaieran, muturreko temperatura baxuenak $1-3\text{ }^{\circ}\text{C}$ artean igo daitezke neguko hilabeteetan. Horrez gainera, klima-ereduek erakusten dute izotz-egunen kopurua % 50 jaitsiko dela ($T_{\min} < 0\text{ }^{\circ}\text{C}$), eta iraupenean eta maiztasunean gutxitu egingo direla. Aurreikusten da hotz-boladak desagertu egingo direla guztiz mendearen erdialderako.

Muturreko temperatura altuenen kasuan udako hilabeteetan zehar $3\text{ }^{\circ}\text{C}$ -ko hazkundea izango duen joera positiboa erakusten dute proiektzioek XXI. mendearen amaierarako, hala gau tropikalen areagotzea ($> 20\text{ }^{\circ}$ -ko gutxieneko temperatura) nola bero-boladen kopurua eta iraupena areagotzea».

Itsasoaren maila igoetzea

Bizkaiko Golkoko itsasoaren batez besteko mailak 18 eta 22 cm artean gora egitea aurreikusten da 2050erako, eta 53 eta 80 cm artean 2100erako, Klima Aldaketari Buruzko Gobernuarteko Taldearen bosgarren txosteneko emisio-egoerekin bat etorruta. Hondartzen zabaleraren murrizketa eta estuarioetan uholdeak izateko arriskua eragingo ditu horrek.

Aurreikusitako klima aldaketaren eragin nagusiak Euskadin.



Uholde-arriskua Uholde-arriskuan klima-aldaketaren efektuei buruzko tokiko ikerketek iradokitzen dute uraldien emari maximoak, uholdeak hartutako azalerak, emariaren balioak eta korrontearen abiadura nabarmen hazi daitezkeela prezipitazio bizien areagotzearen ondorioz, zeinak kalteak eta galerak izateko probabilitatea areagotu dezaketen uholdeak direla eta. Era berean, itsasoaren maila igotzeak eta muturreko olatuak areagotzeak uholdeak sor ditzake, larriagoak suerta daitezkeenak itsasertzetik gertu eraikitako azpiegitura eta baliabideen pilatzea dela eta.

Osasuna Gure hiri nagusietan gero eta bero-bolada gehiago emango da, eta horien ondorioz, areagotu egingo dira gaixotasunak (arnasketa-gaixotasunak, azaleko gaixotasunak, bektore bidez transmitituak, etab.), okertu egingo da giza konforta eta heriotza-tasa ere igo liteke.

Natura-ingurunea Kostako hezeguneetako eta paduretako eraginak ebaluatzeke egindako ikerketek adierazten dute egungo azaleraren % 7ri eragingo diola itsasoaren maila igotzeak XXI. mendearen amaierarako. Igoera horri padurek, hezeguneek eta mareen arteko beste komunitate batzuek, fanerogama-larreak kasu, barnerantz naturalki migratzearekin erantzun diezaiokete, nahiz eta kasu askotan hori eragotzi egingo duten hesi finko artifizialek eta naturalek; ondorioz, eragina izango da biodibertsitatean.

Jada nabaritzen da eragina itsas biodibertsitatean; adibidez, *Gelidium* alga gutxitu da, uraren tenperatura igotzeagatik eta eguzki-egunak areagotzeagatik.

Nekazaritza- eta basozaintza-sektoreak Nekazaritza-sektorean aurreikusten denez, klima-aldaketak zenbait laboreren errendimendua areagotuko du (neguko garia, mahatsondoa); gainera, uraren erabileran eraginkortasuna haziko da, eta faktore hori erabakigarria izango da landareak CO² maila handiarekin eta lehorteekin aldi berean hazten direnean. Beste ondorio batzuk ere espero dira gainera, hala nola ardoen kalitateak behera egitea mahatsondoen kasuan, ondorio kaltegarriak abelgorrietan mendietako larreak ez direlako hain erraz berriz sortuko, patogenoen hazkunde-eritmoaren azkartzea eta horien hilkortasunak behera egitea, eta abar.

Basozaintzan eragin nabarmena izango da isurialde atlantikoko mendietako eremuetan, 900 metrotik gora batez ere, tenperaturak igo egingo direlako. Mediterraneoko isurialdeko ekosistemetan areagotu egingo dira lehorteak eta defizit hidrikoa. Nitxo ekologikoen ereduak erabiliz egindako iragarpenek erakusten dute eragin nabarmena izango dutela hariztietan (*Quercus Robur*), pagadiengan (*Fagus Sylvática*) eta pinu itzaltsuengan (*Pinus radiata*); espero da horien nitxo ia guztiak desagertuko direla 2080rako eta Europa iparralderantz lekualdatuko direla pixkanaka XXI. mendean. Aurreikusten da baita aldaketak gertatzea baso-ustategien errentagarritasun ekonomikoan, nabarmen areagotzea kaltetutako egurraren urteko kopurua perturbazio naturalak direla-eta, ondorioak gertatzea intsektuen izurrien, beren arerio naturalen eta ostalarien orekaren artean, zuhaitzen osasuna eta bizirautea arriskuan jartzeko probabilitatea ematea udako lehortearen maiztasuna eta laztasuna dela eta, eta abar.

2 Lurralde-ereduaren oinarriak eta printzipio gidariak

2.1. Lurralde-ereduaren oinarriak

«I. LURRALDE JASANGARRIA» apartatuaren bosgarren lerrokadan, «landaretza» hitza kendu eta «prozesu naturalak» jarri da:

...izan ere, *prozesu naturalentzako* euskarri diren lurzoruak...

«I. LURRALDE JASANGARRIA» apartatuaren zazpigarren lerrokadako zerrendan, «funtzionalagoak» hitza gehitu da:



	... aberatsago eta <i>funtzionalagoak</i>, hobeto zaindu... «II. LURRALDE INKLUSIBOA» apartatuko bigarren lerrokadan, «osasuntsuekin» hitzaren ondoren hau gehitu da: ... ingurune osasuntsuekin, <i>euskararen erabilera eta presentzia aintzat hartzearekin</i>, hondatuen dauden... Lerrokada berberaren bukaeran hau gehitu da: <i>Gure lurraldeko hizkuntza ofizialen hizkuntza-ikuspegian lurraldearen ikuspegitik euskararen presentziaren gaineko tratamendua alderdi berritzailea da, ikergai bilakatzen ari dena. Lurralde-antolamendurako gidalerroen berrikuspen-prozesu horretan egokitzen jotzen da lurralde antolamenduak eta hiri-antolamenduak euskararen erabilerarekin eta lurralde-arloko proposamenak egiteko aukerarekin zer-nolako harremana duen aztertzea.</i> «III. LURRALDE BIZIA» apartatuaren bigarren lerrokadan, «desagerrarazpena» hitza kendu eta «galera» jarri da: ...adibidez klima-alaketak, biodibertsitatearen <i>galera</i>k, estratosferako ozonoak...
3 Lurralde-eredua Elementu definitzaileak	«VI. Mugikortasuna eta logistika» apartatuaren c) «Bide-mugikortasuna» puntuan mapa kendu eta honako hau jarri da: ...EAEko errepideen <i>planifikazioa</i> gehienbat amaituta dagoela... «VII. Zeharkako gaiak» apartatuaren c) «Klima-aldeketa» puntuan, <i>hurrengo hamarkadetan</i> hitzak ezabatu dira.
4 Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea	
4.1 Ingurune fisikoaren antolamendua	«Gaia zertan den» atalaren hirugarren lerrokadaren amaieran honako hau gehitu da: ...sektorialak (<i>onura publikoko mendiak</i>) eta abar.
4.2 Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuak	«Gaia zertan den» atalean, EAE eskalako azpiegitura berdea osatzen duten elementuen zerrendaren 5. elementuan, URA kendu da eta hau jarri da: ...hala nola IGLak, <i>plan hidrologikoetako</i> Gune Babestuen Erregistroa eta abar)... EAE mailako azpiegitura berdearen mapetan hau sartu da: <i>Urdaibai-Areitio-Goierrri-Arriola korridore ekologikoa.</i> EAEko korridore ekologikoen sarearen mapan bi oztopo gehiago identifikatu dira: - <i>Peña Mariako tunelaren inguruan, non Gasteizko mendien ekialderanzko (Tuio) jarraikortasun ekologikoa N-1 errepideak eta Madril-Irun trenbideak hausten duten.</i> - <i>Pobes inguruan, non Tuioko mendizerraren ekialderanzko jarraikortasun ekologikoa AP-68 errepideak, Miranda Ebro-Bilbo trenbideak eta A-3314 errepideak hausten duten.</i> Azken lerrokada bat gehitu zaio «Gaia zertan den» apartatuari: <i>Aurrekoaz gain, sarearen parte egiten dute baita jarraikortasuna mantentzen duten espazioek, lurralde-eragin nabarmeneko azpiegitura grisak gaintzen dituztenak eta beren planifikazio egokirako eskualde mailatik aztertu behar direnak, zenbait area funtzionaltan eta lurralde historikotan eragina dutelako. Lurralde-zatiketa saihesten duten espazioak dira, eta dokumentu honetan aztertzen direnak dira, lurralde plan partzialek edo hirigintza-planek proposa ditzaketen beste batzuez gain.</i>



«Helburuak» apartatuko D) puntuan, «nekazaritza ekologikoa» kendu eta «nekazaritzako praktika jasangarriak» jarri da:

D) Nekazaritza-praktika jasangarriak eta hurbileko ekoizpen-bitartekoak sustatzea...

5 Landa-habitata

«Gaia zertan den» apartatuaren hemeretzigarren lerrokadan honako azalpenak gehitu dira:

... Baserriak, 1950. urtea baino lehenagoko bizitegi-eraikuntza den heinean, nekazaritza eta abeltzaintzako...

... bermatzaile gisa ere, guzti hori kalterik egin gabe hirigintzako araudian araututako ustiatzei lotuta ez dauden baserriei.

6 Hiri-habitata

6.1 Hiri-sistema: hiriburuen gunen anitzeko sistema, eremu funtzionalak buruen eta azpiburuen sarea eta eraldaketa-ardatzak.

5. puntua gehitu da:

5. *Eraldaketa-ardatzak bi aldeetan kokatutako eremu naturalen artean errepidea zeharkatzeko aukera bermatzea, eremu horiek azpiegiturak eta hirigintza-garapenak direla-eta gainezka egitea eragin dezakeen hesi-efektua saihestuta, eta Ardatz osoan dauden espazio-libre eta parkeen hornidurak zainduz eta hobetuz, edo laborantza-lurzoru onenen kontserbazioa sustatuz.*

1) Hiriburuen gunen anitzeko sistema

Donostiako hiri-eremu integraturako proposatzen diren gidalerro espezifikoaren 3. puntua ezabatu da, bere eraldaketa-ardatzak barne.

Gasteizko metropolialderako proposatzen diren gidalerro espezifikoari puntu bat gehitu zaie:

5. *Berrikuntza-arkua artikulatzea Arabako Teknologia Parkea, aireportua, bere aldameneko industria-parkea eta merkantzien terminal intermodala osatuko duen eremu gisa, non, behar diren lurralde-hutsak errespetatuz, iragazkortasuna bermatuz eta paisaiarekin bat eginez, balio handiko ekonomia-, industria-, logistika- eta teknologia-jarduerak garatu ahalko diren.*

3) Eraldaketa-ardatzak

«Helburuak» apartatuko bosgarren puntuaren amaieran honakoa gehitu da:

...zainduz eta hobetuz, edo nekazaritza-lurzoru onenen kontserbazioa sustatuz.

«IV ERALDAKETA ARDATZAK, EREMU FUNTZIONAL BAKOITZEAN » apartatuan, a.3), b.3), c.4), d.3), e.3) eta g.1) puntuen amaieran honako hau gehitu da:

... eta (guzti hori) uholde-arriskua aintzat hartuta.

a.6 puntua gehitu da:

a.6 *Debabarreneko lurralde-plan partzialean iparralde-hegoaldea lurralde- eta ekologia-iragazkortasuna bermatzea Areitiotik, Urdaibai-Goierrri korridorearen bitartez.*

-DEBABARRENEKO ERALDAKETA-ARDATZA mapako Ermua-Eibar-Elgoibar tartean HB (Hiri-berroneratzea) gehitu da Soraluzen.

- «Debagoieneko eremu funtzionala. Debagoieneko Eraldaketa Ardatza» b) puntuan Polo-Garaia izena kendu eta honako hau jarri da:

Olandiano-Garaia parke teknologikoa

j.5 puntua gehitu da:

j.5 *Durandaldeako lurralde-plan partzialean iparralde-hegoaldea lurralde- eta ekologia-iragazkortasuna bermatzea Areitiotik, Urdaibai-Goierrri korridorearen bitartez.*



6.4 Jarduera ekonomikoetarako lurzorua	«Gaia zertan den» apartatuko azken lerrokadako azken lerroak apartatuaren azkenaurreko lerrokadara lekualdatu dira eta, horien lekuan, honako hau gehitu da: ... egoera berri horietara egokitu beharko da. <i>Birmoldaketa hori nazioarteko organismoen azken erabakien (HABITAT III-ONU eta Europar Batasunaren Amsterdamgo Ituna) arabera egin beharko da, eta lurralde-antolamendua 2006/123/EB Zuzentarauak aintzat hartutako interes orokorreko premiazko arrazoi bezala hartuta.</i>
6.6 Plangintzak bateragarri egitea	«Gaia zertan den» apartatuko azken lerrokada aldatu da, eta honela geldituko da aurrerantzean: ... eremu horiek proposatzeko tokirik egokiena Lurralde Plan Partzialak direla uste dugu, eta, dagokien kasuan, kaltetutako udalerriak berak. «Helburuak» apartatuko 5. puntua ezabatu da.
7 Paisaia, kultura- eta natura-ondarea, eta baliabide turistikoak	
7.3 Natura-ondarea	Helburuak apartatuko 1. puntuaren amaieran honakoa gehitu da: ... natura-ondarea modu integralean sartzea, ekosistemen <i>eta bere osagarri guztien</i> babesa sustatuz.
7.4 Turismo-baliabideak	«Gaia zertan den» apartatuaren laugarren lerrokadan establezimenduen tipologiaren banaketa-portzentajeak zuzendu dira .
8 Baliabideen kudeaketa iraunkorra	
8.1 Ura	«Gaia zertan den» apartatuaren lehen lerrokadan «aldatzeari buruzkoa» kendu eta hau jarri da: ... urtarrikoak, <i>eta 638/2016 Errege Dekretuak, abenduaren 9koak</i>, erregelamendu hau aldatzen dute... Apartatu berean, Eremu Babestuen Erregistroaren kategorien zerrendan, «ibaletako natura-erreserbak» kendu da eta honako hau idatzi da: - <i>Erreserba hidrologikoak.</i> Zuzenketa formalak egin dira: a) titulua ezabatu da, eta b) titulua eta hurrengo lehen lerrokada dagokien aurreko zerrendara pasatu dira.
9 Mugikortasuna eta logistika	Sarrerako lehen lerrokadaren amaieran honakoa gehitu da: ... lehiakortasuna, bizi-kalitatea <i>eta komunikazioak</i> bermatzeko. <i>Garraio-eskariak gero eta handiagoak dira, eta, hortaz, kanpo-konektibitatearen hobekuntza eta barne-konexioen efizientzia handia ezinbesteko baldintza dira lehiakortasunerako eta bizi-kalitaterako.</i> Bosgarren lerrokadan «lurralde baten barruko» hitzak kendu dira
9.1 Mugikortasun multimodala	«Gaia zertan den» apartatuaren amaieran honako hau gehitu da: ...organoa den heinean. <i>Era berean, Lurralde Plan Partzialen idazketaren markoan, Eremu Funtzionalaren lurralde-ereduaren definizioaren barruan eta horren funtsezko elementu gisa, mugikortasun multimodalaren eredia planteatu behar litzateke eremu funtzionalaren mailan.</i>
9.3 Bide-mugikortasuna	Sarrerako koadroaren lerrokadan kendu egin da «mapa» eta hau gehitu da: ...EAEko errepideen <i>planifikazioa</i> gehienbat amaituta dagoela... 2. helburuan «mapa» kendu da eta hau jarri da:



	... EAEko errepideen <i>planifikazioaren</i> zati handiena burututzat jotzea...
9.4 Tren-, portu- eta aireportu-arloko mugikortasuna eta logistika	«Gaia zertan den» apartatuaren bederatzigarren lerrokadan «espezializazio» kendu eta hau jarri da: ... <i>osagarritasuneko eta lehiakortasun-elkarlaneko</i>... «Gaia zertan den» apartatuaren azken lerrokadan «Foronda» kendu eta hau jarri da: ...<i>karga-aireportua (Gasteiz eta bere 24/48 konektagarritasuna) eta</i>...
10 Zeharkako gaiak	
10.3 Klima-aldaketa	Tituluko koadroan «<i>hurrengo hamarkadetan</i>» hitzak ezabatu dira Berotegi-efektuko gasen emisioen bilakaeraren indizearen grafikoa eguneratu da. «Helburuak» apartatuko 4. puntuan «eta bere leheneratzea» hitzak gehitu dira «natura-ekosistemen funtzio-aniztasuna» ondoren: ... <i>natura-ekosistemen funtzio-aniztasuna eta beren leheneratzea</i> sustatuz...
10.6 Lurralde-erlazioa	«Gaia zertan den» apartatuaren hamargarren lerrokadako azkenaurreko esaldian hau gehitu da: ... <i>zehazki, Kantabriako Lurralde Antolamenduko Eskualde Planean</i> definituta dagoen azpieremu funtzionalean... «Gaia zertan den» apartatuaren hamabigarren lerrokadan, lehen puntu eta jarraiaren ondoren hau gehitu da: <i>barrena antolatzen direla. Ildo horretatik, trenbide-sare berria abiadura handian gauzatzeak Valladolid eta Madrilerako abiadura handiko jarraikortasuna lortzeko bidea emango du. Gainera...</i>
11 Gobernantza	
11.2 «Parte-hartzearen kultura» sortzea	«Gaia zertan den» apartatuaren laugarren lerrokadaren ondoren lerrokada berri bat gehitu da: <i>Hasierako onarpenaren ondoren, 4/1990 Legeak Lurralde Antolamenduen Gidalerroetarako ezartzen duen tramitazioak garrantzia osoa hartzen du, parte-hartze publikorako aukera murrizten delarik dokumentuak zilegitasuna eta heldutasuna irabazi ahala:</i>
11.3 Jarraipena, ebaluazioa eta adierazleak	«Lurralde-eredua, lurzoruaren klasifikazioa» ataleko grafikoak aldatu dira, lurzoru urbanizaezinen kategoria banakatuz eta «bestelakoa» hitza ezabatuz. Taula eta grafikoak Udalplan 2018ko datuekin eguneratu dira.
11.5 Planak berrikusteko izapidean administrazio aldetik bateratzea	«Gaia zertan den» apartatuko lehen lerrokada aldatu eta hedatzen da, eta honela geldituko da aurrerantzean: <i>Hirigintza-planen berrikuspen-prozesuek koordinazio administratibo formal eta material konplexua eskatzen dute, beren proposamenen koherentzia globala bermatzeko batetik, eta, bestetik, tramitazio-epeak gehiegi luzatzea saihesteko. Eta, hori, administrazioaren ikuskera global eta integratu baten markoan.</i> Apartatu bereko hirugarren lerrokada murriztu eta aldatu, eta honela geratu da: <i>Sustapenerako, idazketarako, tramitaziorako eta behin betiko onarpenerako epea denboran luzatzea dakar horrek eta, gehienetan, tokiko aginteen 4 urteko epea gainditzea.</i> Laugarren lerrokada kendu da. Bosgarren lerrokada aldatu da, eta honela geratu da: <i>Gobernantzako kapitulu honen barruan funtsezkotzat jotzen da gutxieneko</i>



irizpide batzuk hartzea, honakoetarako: plangintzaren tramitazioan esku hartu behar duten administrazio guztien proposamenen koordinazioa eta bateratzea sustatzeko, horien denen ikuskera unitario baten markoan; hirigintza-plangintzako ingurumen-ebaluazioko prozesuak formalki eta materialki arrazionalizatzea, eta baita beste materia eta/edo ikuskera batzuk sartzea bertan (generoa, hizkuntza); arintze administratiborako ahaleginak egitea udal-planak tokiko agente baten markoan sustatu eta onartu ahal izateko; plangintzaren elaboraziorako eta tramitaziorako prozesuak sinplifikatu eta azkartzea; txosten sektorialen koherentzia global eta bateratua sustatuko duten jarraibideak ezartzea; Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari dagozkion eginkizunak zehaztea, Eusko Jaurlaritzako sailen, foru-aldundien, administrazio zentralaren eta udalen integrazio horizontalerako organo gisa. Horiek eta beste batzuk dira kapitulu honetan lantzen direnak.

Memoriaren eranskinak

12.1 Eranskina: Azpiegitura berdea eta ekosistemen zerbitzuak

A.- EAEko azpiegitura berdea

Urdaibai – Areitio – Goierri – Arriola korridore ekologikoa **gehitu da** bai zerrendetan eta bai mapetan.

B.- EAEn kartografiatutako ekosistemen zerbitzuak

Kartografiatutako zerbitzuen zerrenda **gehitu da** eta zerbitzuen fitxak eguneratu dira.

12.2 Eranskina. Lurralde- eta hirigintza-iraunkortasuneko adierazleak

Lurzoru urbanizaezinen kategorien banakapena **gehitu da** «Lurralde-eredua. Lurzoruaren kalifikazioa» taula eta grafikoetan, eta «bestelakoak» hitza **ezabatu da**.

Taula eta grafikoak Udalplan 2018ko datuekin **eguneratu dira**.

II. Aplikatzeko arauak

I. kapituluak - Xedea eta izaera

2. artikulua Izaera

2. artikulua aldatu da; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

1. *Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek administrazio publikoak eta partikularrak lotetsiko dituzte.*
2. *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Legearen (maiatzaren 31ko 4/1990 Legea) 4. apartatuaren 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, desberdintasun bat ezartzen da antolamenduko eta espazioaren erabilerako gidalerro lotesleen eta gomendio mailako gidalerroen artean.*
 - a) *Antolamenduko eta espazioaren erabilerako gidalerro lotesleak II. kapituluan jasotzen dira eta inposatze-, baztertze- edo alternantzia-irizpideak dira irizpide onargarri batzuen artean.*
 - b) *Gomendio mailako gidalerroak III. kapituluan jasotzen direnak dira. Administrazio eskuduna gidalerro horietatik aldentzen denean, berariaz justifikatu beharko du hartutako erabakia eta bere bateragarritasuna xede dituen helburuekin.*
3. *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Legearen (maiatzaren 31ko 4/1990 Legea) 2. eta 3. apartatuen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, gidalerroak eraginkortasun zuzen edo zeharkakoak izango dira.*
 - a) *Gidalerroen eraginkortasuna zuzena izango da arau zehatzetan adierazten denetan.*
 - b) *Gidalerroen eraginkortasuna zeharkakoa izango da gidalerroak lurralde-plangintzaren arloko eskuduntzako administrazio publiko desberdineki zuzenduak daudenean berariaz, eta hirigintza-plangintzaren bitartez garatu behar direnean.*



	c) <i>II. kapituluko gidalerroak eraginkortasun zuzenekoak dira hirigintza-plangintzarako, ataletako termino berberetan, salbu lurralde-plangintza partzialari edo sektorialari erreferentzia egiteagatik zeharkako eraginkortasuna badute edo eraginkortasunik ez badute, arau hauetako I. Eranskinean zehazten den bezala.</i>
II. kapitulua - Espazioaren antolamendurako eta erabilerarako gidalerroak	
3. artikulua Ingurune fisikoaren antolamendu arloko gidalerroak	1.c) 2. puntuaren amaieran argibide hau gehitzen da: <i>Espazio hauen definizio zehatza II. eranskineko 2.b.2 apartatuan garatzen da.</i> 3.c) puntuan «2³» definizioa aldatu egiten da; «Ingurumen arloko araudi espezifiko» jarri beharrean, honako hau idatzi da: <i>«2³»: babes-figura aplikagarriak dauzkate (NBAP, Urdaibaiko EKZP, KBE)...</i> 4.a) 2 puntuaren amaieran honakoa gehitu da: <i>... eremu funtzionalaren arabera egokituko du. Baldin eta lurralde-plangintzaren eremuaren barruan ingurumen-balioengatik edo Urdaibaiko Biosfera Erreserban egoteagatik babestutako guneren bat badago, horien sektore-legerian jasotako zonakatzea eta erabilera-arauketa txertatuko ditu.</i> Aldaketa batzuk sartu dira 4.a) 3 puntuan, eta honela gelditu da: 3. <i>Hirigintza-plangintzak, lurzoru urbanizaezina arautzean, kategorien eta gainjarritako baldintzen mugaketa doituko du, eta baita lurralde-plangintzan ezarritako erabileren erregulazioa, eta kategoria, baldintzatzaile eta erabilera erregimen horiek birdoitzeko aukera izango du, udalerrri bakoitzaren baldintzetara eta lan-eskalara egokitzeko. Edonola ere, aipatutako kategorien eta erabileren erregimenaren azken doitzea hirigintza-plangintzari berari dagokion eginkizuna da.</i> Erabilera-matrizean aldaketa hauek egin dira: <i>-«Mendi Larreak» kategoriako «Garraiobideak» 2¹ izatetik 2 izatera pasa da.</i> <i>-«Basoa» kategoriako «Berotegia» 3 izatetik 2¹ izatera pasa da.</i>
4. artikulua Azpiegitura berdearen eta ekosistemen zerbitzuen arloko gidalerroak	3.a) puntua ordezkatu da, testu honengatik: a) <i>Natura-gune babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, horien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, espazioaren planifikazioa osatuko duen dokumentu bakarrean bateratzeko, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin.</i> 3.c) puntuaren amaieran «lehengoratzeko» hitza kendu eta «leheneratzeko» jarri da: <i>... leheneratzeko ekologikorako...</i> 7.b) puntuan kendu egin da «sistema orokor gisa eta espazio librean eta berdeguneen sistema orokor gisa kalifikatutako espazioak» eta honako hau idatzi da: <i>...horren barruan kontuan hartzea (azpiegitura berdea) tokiko mailan sistema orokor gisa kalifikatutako espazioak, eta, aukeran, espazio librean eta berdeguneen espazio...</i>



10. artikulua Hiri-berroneratzearen arloko gidalerroak	Berriz idatzi da 2 j) puntua, eta honela geldituko da aurrerantzean: <i>j) Hiri-azpiegitura berdea sustatzea naturan oinarritutako soluzioen erabileraren bitartez, hiri-eremuko natura-prozesuak hobetzeko, hala nola drainatzearen hobekuntza eta uren kalitatea, hiri-uholdeen arintzea, airearen kalitatearen hobekuntza eta isolamendu akustikoa. Ildo horretan, arboladiak areagotzea proposatzen da azpiegituren inguruan, isolamendu akustikoa hobetzeko eta konfort klimatikoaren faktore erregulatzailer gisa eragiteko.</i>
12. artikulua Jarduera ekonomikoetarako eta merkataritza-ekipamenduetarako lurzoruaren arloko gidalerroak	5.c) puntuan «lurzoru berria» hitzak kendu eta honakoak jarri dira: ... jarduera ekonomikoetarako <i>bizitegi-azalera eraikigarria</i> — azalera baliokidearekin—...
13. artikulua Bizitegi-kuantifikazioen arloko gidalerroak	Idazketa berri bat egin da 1.d) punturako, eta honela gelditu da: <i>d) Tratamendu bereizia ematea hiri finkatuan gertatzen diren bizitegi-hazkundeei, lurzoru berrien okupazioaren bidez sortzen direnekin alderatuta:</i> - <i>Kuantifikazio-irizpideetatik sortzen den bizitegi-ahalmenaren gainetiko bizitegi-gehikuntzak onartuko dira, betiere hiri-lurzorua birgaitzeko, berroneratzeko edo birdentsifikatzeko eragiketen bidez gertatzen badira.</i> - <i>Ez da onartuko bizitegi-kuantifikazioaren kopuruaren gainetiko proposamenik landa-egoeran dagoen lurzoru urbanizagarria sortzen denean; hortaz, kuantifikaziorako irizpideak aplikatzeak aipatutako lurzoru horren desklasifikazio oso edo partziala ekar dezake hirigintza-plangintzaren ondoriozko berrikuspena egiten denean.</i> 2.b) 4 puntua 2.d) puntura lekualdatu da
14. artikulua Plangintzak bateragarri egitearen arloko gidalerroak	1.d) puntua gehitu da <i>d) Udalerrien plangintzan hartu beharreko irizpide espezifikoak udalerrri horiek beren hirigintza-estrategien integrazio eraginkorra lor dezaten.</i> 2. puntua murriztu eta aldatu da, eta honela geratu da: <i>2. Bateragarritasunetako tresna alternatibo gisa bateragarritze-proiektu baten idazkuntza ezartzea, eraginpeko udalerrri bakoitzaren plangintza orokorrean barne hartu beharreko zehaztapen espezifikoak bilduko dituen, lortu nahi den bateragarritzea bermatzeko.</i>
15. artikulua Uraren arloko gidalerroak	7.c) puntuan «Ibaietako natura-erreserbak» kendu da eta hau idatzi da: c) <i>Erreserba hidrologikoak.</i>
16. artikulua Energiaren arloko gidalerroak	4. puntuan «... berriztagarrien beroa aprobetxatzeko soluzioei lehentasuna emanez ez-berriztagarrien aldean» kendu da eta hau idatzi da: ... <i>iturri berriztagarrietako energia lortzeko soluzioei lehentasuna emanez. Horrez gain, energia-autokontsumoko sistemak erabiltzea lur urbanizaezinetan kokatutako...</i>
17. artikulua Ekonomia zirkularraren arloko gidalerroak: hondakinen kudeaketa	2. puntuan «Lurraldeko» gehitu da hasierako «plangintza» hitzaren aurrean eta kendu egin da «udalerrri» hitza «eremu funtzional» jartzeko. 3. puntuan kendu egin da «erreserbatuz» eta «adieraziz» jarri da; «lurraldeko» idatzi da «plangintza» hitzaren aurrean, eta honako hau gehitu da: ...<i>behar diren hornidurak, egun dauden azpiegituren berrerabiltzea lehenetsiz.</i>



18. artikulua Ekonomia zirkularraren arloko gidalerroak: lurzorua baliabide gisa	1. puntuaren amaieran honakoa gehitu da: <i>lehentasuna emanez, zabortegi zahar zigilatuak esate baterako, azpiegitura edo ingurumen-ekipamendu bezala kalifikatu beharko direnak.</i>
19. artikulua Zeharkako gaien eta hiri-ereduaren arloko gidalerroak	28. artikulua 19. artikuluko bihurtu da, eta tarteko artikuluen zenbakitzea aldatu da.
III. Kapituluak - Gomendio mailako gidalerroak	
20. artikulua Landa-habitataren arloko gidalerroak	Puntu bat gehitu da (12.): <i>12. Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueren lotutako instalazio eta eraikinak eraikitzearako orduan eskatzen diren baldintzak malgutu eta homogeneizatzeko, nekazaritza-ustiatze profesionalen garapena erraztuz.</i>
21. artikulua Paisaiaren arloko gidalerroak	1.d) puntuko «asmo espezifikorik gabeko lurretan» testua kendu da. 6. b) puntua aldatu da ; «edo hirien kanpoaldeko» eta «eta hobetzea» gehitu dira, eta honela gelditu da idatzita: <i>b) Hiri-ertzetako edo hirien kanpoaldeko paisaia babestea eta hobetzea.</i>
23. artikulua Kultura-ondarearen arloko gidalerroak	3. puntua aldatu da , testu honen arabera: <i>3. Naturan oinarritutako soluzioen aplikazioa sustatzea, horiek baitira ekosistemen funtzionamendua hobetu, biodibertsitatea areagotu, habitaturiko guneen erresilientzia hobetu eta biztanleriaren osasuna eta ongizatea hobetzeko bidea ematen dutenak.</i>
24. artikulua Baliabide turistikoaren arloko gidalerroak	4. puntua kendu da .
25. artikulua Mugikortasun multimodalaren arloko gidalerroak	9. puntua aldatu da , eta honela geratu da idatzita: <i>9. Bizitegi-garapen edo jardura ekonomiko berrien proposamenetarako irisgarritasun egoki bat aurreikustea bai ibilgailu pribatuan, bai oinez, bai bizikletaz eta bai garraio publiko bidez.</i>
26. artikulua Oinezkoen eta bizikleten mugikortasunaren arloko gidalerroak	3. puntuko bigarren esaldia kendu da . 5.b) puntuaren amaieran honakoa gehitu da : <i>... EAEko Bizikletentzako Ibilbideei buruzko Plan Zuzentzailea edo lurralde historikoetako lurralde-plan sektorialak kontuan hartuz.</i> 5.c) eta 5.e) puntuak kendu dira . 5. puntuaren ondoren puntu berri bat gehitu da : <i>6. Oinezkoen lehentasuna ematea bizikleten gainetik udalak zehaztuko dituen herri barruko bideetan:</i>
27. artikulua Bide-mugikortasunaren arloko gidalerroak	1. a) puntuko zerrenda aldatu da , eta honako zehaztapenak sartu dira: a) Euskal Hiriburuen Gune anitzeko Sistemaren kanpoko konexioak (...) 5.-Donostia – Iruñea (A-15) 6.- Donostia Baiona, Bordele eta Parisekin (AP-1 eta A-63) (...)



	1. c) puntuko zerrenda aldatu da; aurrerantzean, honela egongo da idatzita: c) Eremu funtzionalen interkonexioak, <i>honako ibilbideen arabera</i>: 1. Durango - Arrasate - Bergara - Beasain. 2. Plentzia - Elgoibar. 3. Zornotza - Igorre - Vitoria-Gasteiz. 4. Kadaguako korridorea. 5. Derio - Mungia - Bermeo. 6. Zornotza - Gernika. 7. Balmaseda - Muskiz. 8. Azpeitia Azkoitia Elgoibarrekin, Zarautzekin eta Zumarragarekin. 9. Laudio - Urduña - Miranda Ebro. 10. Zanbrana - Bastida - Guardia - Logroño. 11. Gasteiz - Amurrio - Balmaseda. 12. Gasteiz Kanpezurekin eta Gaubearekin. 13. Zanbrana - Urizaharra- Bernedo - Kanpezu. 14. Guardia - Kanpezu.
28. artikulua Tren-, portu- eta aireportu-arloko mugikortasunaren eta logistikaren arloko gidalerroak	Hiru zuzenketa egin dira: - 1.a) 5 puntuan kendu egin dira «ahalbidetzeaz gain» hitzak «hiriburuen arteko konexioa» eta gero. - 1.a) 6.d) puntuan «Ezkio-ltsasoko geltokiak Nafarroarekiko konexiora sartzeko modua emango du» hitzak kendu dira eta honela idatzi da: <i>Ezkio-ltsasoko geltokia da Nafarroarekiko konexiorako bi aukeretako bat...</i> - 3.a) puntuan «espezializazioak indartzean» kendu da eta hau idatzi da: <i>... aireportu-sistema sustatzea, EAEko hiru aireportuen potentzialtasunak garatuko dituen elkarlan lehiakor baten bitartez.</i>
29. artikulua Irisgarritasun unibertsalaren arloko gidalerroak	2.d) puntua kendu da
31. artikulua Klima-aldaketa arintzearen eta klima-aldaketari egokitzearen arloko gidalerroak	3. puntuan kendu egin da «berroneratu» hitza eta «leheneratzea» idatzi da, eta «naturalizatzea» kendu da. <i>... eta ekosistemak leheneratzea, lurraldearen erresilientziari eusteko.</i> 4. puntuan honako argibidea gehitu da «Baso-kudeaketa hobetzea» hitzen ondoren: <i>Baso-kudeaketa hobetzea, deforestazioek eragin ditzaketen lurzoruen galerak ekidinez, lurzoru baita karbonoaren sarbegi nagusia, eta degradatutako eremuak...</i>
36. artikulua LPP eta LPSen jarraipen-memoriaren arloko eta iraunkortasun-adierazleen arloko gidalerroak	Puntu berri bat gehitu da (5.): <i>5. Lurralde-plan partzial eta lurralde-plan sektorial guztiek, oinarritzko dokumentazioaz gain, zerkusia duten udalerrietako bakoitzarentzako ondorioen dokumentu osagarri bat izan beharko dute.</i>
37. artikulua Lurralde plangintza partzial eta sektorialaren arteko koordinazioaren arloko gidalerroak	Berriz idatzi da artikulua, eta honela geldituko da aurrerantzean: <i>1. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea lurraldearen antolamendu eta hirigintza kontuetako aholkurako eta koordinazio horizontalerako organo nagusia da administrazio guztientzat (horietan presentzia daukanean), administrazio autonomoko sailentzat eta autonomia-erkidegoko gainerako administrazio publikoentzat barne (administrazio zentrala, foru-aldundiak eta udalak), eta berari dagokio lurralde-plangintza interpretatu eta eztabaidak argitzearen eginkizuna.</i> <i>Testuinguru horretan, lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan</i>



eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako sail edo arloak izango dira, beren aldetik eta administrazio horietan, lurralde- eta hirigintza plangintzako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren funtzio integratzailearen arloko osagarriak koordinatzearen eginkizuna izango dutenak.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Legearen (maiatzaren 31ko 4/1990 Legea) 17.5 artikulua xedatutakoarekin bat etorrita, lurralde-plan sektorialek lurralde-antolamenduaren gidalerroekin izan ditzaketen kontraesanak, eta, dagokion kasuan, lurralde-plan partzialekin izan ditzaketenak, lurralde-plan sektorialaren parte hori edo parte batzuk deuseztatzea ekarriko du.

Horri kalterik egin gabe, honako gidalerroak proposatzen dira:

a) Lurralde-plan partzialen eta lurralde-plan sektorialen arteko desadostasunak.

Aurkako legezko maila duen araua salbu, kontraesan horiek irizpide hauei jarraikiz argitu beharko dira:

1. Lurralde plan partzialari dagokionez:

a) Lurralde-plan partzialaren irizpidea lurralde-plan sektorialaren gainetik jartzea eremu funtzionaleko lurraldearen izaera propioa duten gaiez ari denean.

b) Zalantzarik izanez gero, lurralde-plan partzialaren alde egingo da.

2. Lurralde plan sektorialari dagokionez:

a) Lurralde-plan sektorialaren irizpidea lehenestea EAE osoan edo Eremu Funtzionaletik haragoko mailan aplikagarri diren gaietan (uholde-arriskua, nekazaritza-bitartekoaren babesa, kostaldearen babesa, ibai eta errekekiko atzerapenak, Trenbide Sare Berriaren azpiegiturari dagozkion antolamendu-baldintzak).

b) Lurralde-plan partzialak murrizketa handiagoak justifikatuko ditu lurralde-plan sektorial bakoitzak, bere eskumenen esparruan, araututako gaietan.

b) Lurralde-plan sektorialen arteko desadostasunak.

1. Lurralde-plan sektorialek lurraldean elkartutako beste plan sektorialekiko koordinazioari dagokion apartatu bat izan beharko dute beren memorian, non gatazka posibleak saihestu eta/edo deuseztatzeke neurri egokian jasoko diren.

Neurri horiek izan ezean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak zehaztuko ditu irizpideak, kasu bakoitzean eta modu justifikatuan, egoki irizten direnak indarreko edo etorkizuneko lurralde-plan sektorialen artean sor daitezkeen gatazkak saihestu edo konpontzeko.

2. Desadostasunak lurralde-antolamenduaren gidalerroetan jasotako irizpideekin bat etorrita konponduko dira, eta, irizpiderik ezean, lurraldearen babes handiagoa edo lurralde-jasangarritasuna hobeto betetzea dakartenekin.

3. LPPetan formatu erkide bat ezartzea, homogeneousotasunez lan ditzaten aurre egin beharreko alderdiak eta elementu grafiko berdinak erabil ditzaten. Formatu erkide horretan eremu funtzionalaz gaindiko dimentsioa biltzea, eta beste eremu funtzional batzuekiko –eta bereziki mugakideekiko– elkarreragina aztertzea.



planen berrikuspenen tramitatzean administrazioa integratzearen arloko gidalerroak

1. Hirigintza-plangintzaren tramitazio-prozesuetan esku hartuko duten administrazioek ezingo dute Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legean (ekainaren 30eko 2/2006 Legea) ezartzen ez den beste izapiderik onartu, onarpenerako prozedurak atzeratzea ekidite aldera.

2. Ingurumen arloko ebaluazio-prozeduraren izapideak eta planaren funtsezko prozeduraren izapideak beteko dira aldi berean, izapidetzearen epeak hobetze aldera.

3. Administrazioen arteko lana eta koordinazioa errazteko xedez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak honakoak egingo ditu:

a) Plan orokorraren moldatzea aztertzea, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 91.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorrira.

b) Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako eta administrazio zentralako sailek aurkeztutako txosten sektorialak dokumentu bakarrean biltzea, ingurumen-ebaluazio estrategikoari lotutako ingurumen-organoen txostenak barne, igortzen diren kasuetan, koherentzia global bat bermatuz.

4. Ingurumen-organismoak ebaluatuko du, legedi aplikagarriaren markoaren barnean, plan orokorrean proposatutako ingurumeneko aspektuen integrazioa, berariaz azpimarratuz bere eskuduntzako gaiak eta ingurumenaren ikuspuntutik garrantzia justifikatua dutenak.

5. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txosten tekniko bat sortzea sustatuko du, non administrazioarteko bateratze maila aztertuko den lurralde-plangintzak hirigintza-plangintzarekin duen koordinazioko gidalerroen aplikazioan.

20. artikulutik 29. artikulurainokoetan

Honako aditz-denborak aldatu dira:

Artikulua (berriz zerrendatua)	Apartatua (berriz zerrendatua)	Hasierako onarpenaren idazketa	Idazketa aldatua
19 (20)	10	izango dituzte	izan beharko lituzkete
20 (21)	10	bildu beharko dituzte	bildu beharko lituzkete
21 (22)	1	sartuko dituzte	sartu beharko lituzkete
	2	izango du kontutan	izan behar luke kontutan
	3	aintzat izango dute	aintzat izan behar lukete
	4	izango ditu barnean	izan behar lituzke barnean
	4.d.4.b	definituko dituzte	definitu beharko lituzkete
	4.d.4.c	ezarriko du	ezarri behar luke
	5	egingo dituzte	egin beharko lituzkete
23 (24)	2	bat etorri beharko du	bat etorri behar luke
	6 (5)	definitu beharko du	definitu behar luke
25 (26)	4	beharko du	behar luke
	5	garatu eta artikulatuko du	garatu eta artikulatu behar luke
28 (29)	1	garatuko du	garatu behar luke
	2	aintzat izango du	aintzat izan behar luke

Aplikatzeko arauen eranskinak

Aplikatzeko arauen I. ERANSKINA: antolamenduko eta espazioaren erabilerako gidalerroen hirigintza-plangintzarako eraginkortasun lotesle zuzen edo zeharkakoen identifikazioa, lurralde-antolamenduaren gidalerroen APLIKATZEKO ARAUAK II. kapituluaren jasotzen direnak.

Berria:

Artikulua	Efikazia lotesle zuzena	Zeharkako efikazia loteslea
3	1., 2., 3., 4a. (3. eta 4.) eta 4b. apartatuak	4a. (1. eta 2.) apartatua
4	2., 3., 4., 5. eta 7. apartatuak	1. eta 6. apartatuak
7	3., 4., 5. eta 6. apartatuak	1., 2. eta 7. apartatuak
8	1., 3., 4. eta 5. apartatuak	2. apartatua



	9	Artikulu osoa
	10	2. apartatua
	11	Artikulu osoa
	12	1., 2., 3. eta 4. apartatuak
	13	1. eta 2. apartatuak
	14	2. apartatua
	15	1., 2., 3. eta 8. apartatuak
	16	2. eta 4. apartatuak
	17	4. apartatua
	18	Artikulu osoa
Aplikatzeko arauen II. ERANSKINA: Ingurune Fisikoaren Antolamendua 1. Ingurune fisikoaren elementu eta prozesuak eta jardueren kontrola: 1.a. Elementuak eta prozesuak		
1.a.1. Lurzoruaren eta lurpearen trataera	C) puntuak, «partzialek» eta gero hau gehitu da: ... gaineratuko dituzten lurralde-plan partzialek eta sektorialek, landa- eta... c) puntu berberaren amaieran, «Programak» hitzaren ondoren hau gehitu da: ... egikaritzeko epek. Programak, <i>adierazle gisa</i>, honako hauek izan daitezke:	
1.a.2. Biodibertsitatearen tratamendua	d. Puntuaren amaieran honakoa gehitu da: ...lekuetan. <i>Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitatak babestu eta kontserbatuko dira.</i> Testu hau gehitu da e. puntuaren amaieran: ...saihestuko da, <i>eta, oztoporik egonez gero, aztertu egingo dira eta neurriak hartuko dira zirkulazio hori ahalbidetzeko.</i>	
1.a.3. Gainazaleko baliabide hidrikoen tratamendua	c. puntuaren amaieran honakoa gehitu da: ...bete beharko da, <i>eta, Naturagune Babestuak direnetan, horien arau propioak xedatzen duenera.</i>	
1.b. Jardueren kontrola		
1.b.1. Azpiegiturak	4. puntuaren amaieran honakoa gehitu da: ...ahalbidetuko duten neurriak eta <i>teknikak</i> hartzea konektibitate ekologikoa atxikitze aldera, <i>eta bai proiektatutako azpiegituren eta bai gauzatutako paisaia-integrazio egoki bat aurreikustea, horiek kontserbatu eta mantentzeko behar diren lanak kontutan hartuz.</i>	
1.b.2. Erauzteko jarduerak	d. Puntuaren amaieran honakoa gehitu da: ...alde batera utzi gabe, <i>eta lurpeko uren babeserako arreta egokiarekin.</i> e. puntua aldatu da, eta honela geratu da idatzita: e) <i>Lurralde-ordenamendu eta -erabilera kontuan hartuta, komeni da aipatzea eraginen ziurgabetasuna dela-eta eta EAEko biztanleria-dentsitatea nahiz hiri-azpiegituren kontzentrazioa handiak direnez, ez dela hidrokaburo ez konbentzionalen ateratzerik edo haustura hidrauliko edo «fracking» bezalako</i>	



	<i>teknikarik gomendatzen.</i>
1.b.3. Hirigintza- eta eraikuntza-jarduerak	«Landaguneak» apartatuko 4. puntuaren ondoren puntu berri bat gehitu da: <i>5. Landaguneen azalera, inbentarioarekin bat etorrira, hiri-lurzoru eta urbanizagarri gisa klasifikatutako azaleraren hiru adinakoa denean gutxienez, etxebizitza berriak sortu ahal izango dituzte 1950. urtea baino lehenagoko baserriek, Lurzoruari eta Hirigintzari Buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako baldintzei jarraikiz. 1950a eta gero eraikitako baserrien eta bizitegi-erakinen guztizkoak ezingo du, gune bakoitzean, 25 unitateko muga gainditu.</i>
1.b.6. Nekazaritzako jarduerak	a. puntuan kendu egin dira «LAG hauetan xedatutakoa bete beharko dute, baita» hitzak, eta amaieran hau gehitu da: <i>Nekazaritza-jarduerak eta egungo nekazaritza-lurzoruetan garatzen diren erabilerek lurralde-planetan eta Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoa bete beharko dute, salbu lehentasunez aplikatu beharreko LAGetan ezarritakoarekin bat ez badatoz.</i> f. puntuaren amaieran honakoa gehitu da: <i>...kokatu beharko lirateke, abeltzaintza intentsiboaren salbuespen normatiboan izan ezin.</i>
2. Ingurune fisikoaren arautzea: erabilera-matrizea.	
2.b. Baldintzatzaile gainjarriak	Puntu bat gehitu da: <i>2.b.4. Baldintzatzaile gainjarrien informazio grafikoa Eusko Jaurlaritzaren Informazio Geografikoko atarian egongo da eskuragarri, GeoEuskadin: www.geo.euskadi.eus.</i>
2.c. Erabilerak	3.a. puntuko azken esaldia kendu da. 3.c. puntuan, «artzaintzarako lurrak prestatzeko jarduerak» eta gero hau gehitu da: <i>...artzaintzarako lurrak prestatzeko jarduerak eta elikagaien ekoizpenera (haragia, esnea, arrautzak, etab.), artilera, larrura edo beste produktu batzuetara zuzendutako abereen hazkuntza. Abeltzaintzako izaera...</i> 3.d. puntuan, bigarren esaldian «erabilera» hitza baino lehen hau gehitu da: <i>... baso-lursailen hobetzea edo ustiapena xede duten jarduera guztien erabileran barne hartutakotzat...</i> 5.e puntuaren ondoren puntu berri bat gehitu da: <i>f. Nekazaritza-ustiategi bati lotutako bizitegi isolatua: nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi bati lotutako familia bakarreko edo bi familiako etxebizitzek osatutako eraikinak nekazaria bertan bizitzeko, aurrez behar hori justifikatu ondoren.</i>



2.d. Erabilerak arautzea. Erabilera-matrizea	3.c puntuaren bigarren esaldian, «nekazaritza» hitzaren ondoren «berotegiak» gehitu da, 3.d puntutik ezabatu dena 3.d puntuan salbuespenak sartu dira parentesi artean. ... eraikuntza-erabilera guztiak (<i>salbu...interes sozialeko eraikinak</i>). 5.d puntuan honakoa gehitu da: ... <i>basogintza (bereziki hostotsuak direnak eta epe ertain eta luzeko hazkundeko koniferoak)</i>, berotegiak... Erabilera-matrizean aldaketa hauek egin dira: -«Mendi Larreak» kategoriako «Garraiobideak» 2¹ izatetik 2 izatera pasa da. -«Basoa» kategoriako «Berotegia» 3 izatetik 2¹ izatera pasa da.
Aplikatzeko arauen III. ERANSKINA: Bizitegi-kuantifikazioa	
1. Bizitegi-kuantifikazioa	Azken lerrokadan lehen pausuaren deskribapenaren azken esaldia kendu da eta hau gehitu da bigarren pausuaren deskribapena eta gero: ... arabera harrotze-faktorea aplikatuz. <i>Lortutako emaitzari leheneratu nahi den jenderik gabeko etxebizitza kopurua kentzen zaio, emaitzazko bizitegi-gaitasuna murrizteko helburuarekin. Amaieran...</i>
1.a. Bizitegi-premiak	Landaguneak kalkulatzeko formula aldatu da, seigarren batugaia kenduz (-C2). 7. puntua kendu da, C2 osagarriaren deskribapenarena.
1.b. Premiak kalkulatzeko aplikazio-irizpideak	«Batez besteko familia-tamaina» 1.b.2 puntuaren amaieran argibide hau gehitu da: ...aplikatu behar zaio, <i>udalerrian produzitutako azken hamar urteei dagokien urteko murrizte-tasa justifikatuta.</i>
2. Bizitegi-ahalmena	Hirugarren lerrokadako parentesi arteko esaldia kendu da: (hortaz, plangintzaren indarraldirako aurreikusitako etxebizitza-eraikuntza) Landaguneak kalkulatzeko formula aldatu da, batugai berri bat gehituz (-C2) haren amaieran, eta honakoa gehitu da hirugarren lerrokadaren amaieran: ...beteko direla bermatzeko. <i>Lortutako emaitzari leheneratu nahi den jenderik gabeko etxebizitza kopurua kentzen zaio, emaitzazko bizitegi-gaitasuna murrizteko helburuarekin. Kopuru hori plangintzaren hasieran existitzen den bizitegi-parkearen gutxieneko % 2ari dagokionean ezartzen da.</i> C2: <i>Leheneratzeko jenderik gabeko etxebizitzak (existitzen diren etxebizitza guztien % 2a gutxienez).</i>
2.b. Aurreikusi beharreko bizitegi-gaitasunaren murrizketa, existitzen diren jenderik gabeko etxebizitzaren parte bat berreskuratzearen ondorioz: (C2)	C2 osagarriaren deskribapena gehitu da , bere aplikazio-aldaketa adieraziz.
3. 2018-2026 aldirako kuantifikazio-metodoaren ezarpen argigarria	Aldaketak aplikatu dira aurrez aipatutako formuletan.
4. Udal-plangintzako bizitegi-lurzuaren eskaintzaren kuantifikazioa kalkulatzeko fitxak	Aldaketak aplikatu dira aurrez aipatutako formuletan.



Aplikatzeko arauen IV. ERANSKINA: administrazio zentralaren txostenen arabera sartutako arloko legeria	
4. Kostaldeei buruzko legedia	Puntu osoa kendu eta berria idatzi da: a) <i>Lurralde-plan partzialek nahiz sektorialek, eta hirigintza-plangintzek, gidalerroen laburpen-mapa garatuko dute, zeinek bere eskalan jasota hauek: itsasertzaren lerroa, itsaso eta lehorren arteko jabari publikoaren mugaketa, babes-zortasuna, bide-zortasuna, eragin-eremua eta itsasorako sarbide-zortasuna. Horretarako, 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoan ezarritakoa bete eta dagozkion mugaketak aplikatuko dira.</i> <i>Guzti hori, aipatutako lerroen irudikapenean eman daitekeen edozein desdoitzaren aurrean mugarritze-planoetan agertzen diren datuak plangintzan islatutakoen gainetik egongo direla kontutan hartu gabe.</i> <i>Gidalerroen laburpen-mapak grafikoki jasotzen ditu itsasertzaren lerroa, itsas-lehorreko jabari publikoaren mugarritze-lerroa, babes-zortasuna eta eragin-eremua. Mapa eskala egokian kontsulta daiteke GeoEuskadin, Euskadiko Datu Berezien Azpiegituran (DBA):</i> <i>http://www.geo.euskadi.eus/s69-bisorea/es/x72aGoeoeuskadiWAR/index.jsp</i> b) <i>Itsas-lehorreko jabari publikoaren erabilera uztailaren 28ko 22/1988 Legearen III. tituluak araututakoa izango da; horrela, beren izaera dela-eta beste kokapenik izan ezin dezaketen jarduera edo instalazioei bakarrik baimenduko zaie jabariaren okupazioa, eta beti izan beharko dute dagokien gaikuntza-titulua.</i> c) <i>Babes-zortasuneko zonako erabilera Kostei buruzko Legearen 24. eta 25. artikuluetan xedatutakora egokituko dira, eta, beraz, zona horretan baimendutako erabilerek autonomia-erkidegoko organo eskudunaren baimena izan beharko dute. Igarobide-zortasunak eta itsasora iristeko bideak errespetatzen direla bermatu beharko da, Kostei buruzko Legearen 27. eta 28. artikuluetan hurrenez hurren xedatzen denaren arabera. Era berean, 30. artikuluan eraginpeko zonari dagokionez xedatzen diren baldintzak bete beharko dira.</i> d) <i>Existitzen diren saneamendu-sareek dagokien gaikuntza-titulua izan beharko dute, eta gaur egun dauden instalazioak eta etorkizunerako proposatutako instalazioak uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 44.6 artikuluan ezarritako muga mende egongo dira. Elektrizitateko azpiegituren kasuan, itsas-lehorreko jabari publikoa liberatu nahi duten jarduketak planifikatzeko aukera baloratu beharko da, salbuespenezko baimenik izan ezean debekatuak daudenak uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 25. artikuluan arabera.</i> e) <i>Hiri-hazkunderen arloko gidalerroei dagokienez: Kostei buruzko Legearen 30. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla izan beharko da kontutan dagozkien udaleko hirigintza-plangintzetan proposatzen diren lurzoru urbanizagarrien sektoreen kasuan. Gainera, hirigintzako araudian ezarritakora moldatu beharko dira eraikuntzak, ezingo dutelarik pantaila arkitektonikorik sortu edo bolumen-pilaketarik eragin.</i> f) <i>Kostaldekoko ibilbideetako bide eta begiratokien kasuan kontutan izan beharko da trazatua itsas-lehorreko jabari publikotik kanpo egin beharko dela.</i> g) <i>Kultura-ondarearen arloko gidalerroetan, non babes-maila desberdinak aintzat hartzea proposatzen den, kontutan izan beharko da itsas-lehorreko jabari publikoko lursailetan edo babes-zortasunean kokatzen diren eraikin, elementu edo instalazio babestuak Kostei buruzko Legearen laugarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren mende egongo direla, katalogatuko diren</i>



	elementuentzako ezarriko den babes-erregimena kontutan izan gabe. h) Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduaren gidalerroen berrikuspenaren garapenerako irizpide, helburu eta proposamen orokorrek bat etorri beharko dute uztailaren 28ko 22/1988 Legearen zehaztapenekin, kalterik eragin gabe, garapenean erator daitekeen hirigintza-plangintzari buruz, aipatutako Legearen 112 a) eta 117. artikuluetan ezartzen den tramitazioko txostenen bitartez gauzatu beharreko hirigintza-plangintzari buruzko erabakiari. Txosten horiek plangintzak itsas-lehorreko jabari publikorako planteatutako proposamen zehatzak baloratuko dituzte, eta baita horien zorpen-eremuak ere, eta kosten alorreko legezko xedapenetara egokitzen diren ala ez.
5. Portuak	Berria: a) Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoari jarraiki (Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena), hau da portuetako agintaritzen eskuduntzako den lurralde-eremua: portuaren zerbitzu-eremuaren eta kudeatzeko ardura duten itsasoko seinaleztapen-zerbitzuaren menpeko espazioen mugetan sartzen den eremua. b) Portuko espazioen gaineko eskuduntza elkartua duten administrazioen artean behar den koordinazioa artikulatzeko, estatuko portuetako zerbitzu-eremua portuko sistema orokor bezala kalifikatu beharko dute plan orokorrek eta hirigintza-antolamendurako gainerako instrumentuek, eta bai itsasoko seinaleztapen-zerbitzuaren eraginpeko portuko jabari publikoa ere; ezingo dute portuaren ustiatze-eskuduntzen eta itsasoko seinaleztapenen jarduketetan inolako asaldatzeko edo nahasmendurik eragin dezakeen zehaztapenik sartu, eta Estatuko Portuen txosten loteslea eskatuko da aurrez, Itsasargien Batzordeak irizpena eman ondoren, aurrez aipatutako espazioetatik kanpoko jarduketan ondorioz itsasoko seinaleztapen-zerbitzuan eraginik gerta daitekeen kasuetan, inguruetan itsas-nabigaziorako laguntzarako instalazioen bat dagoenean. c) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntzakoak diren portuen eta itsas- eta portu-instalazioen planifikazio-, antolamendu-, ustiatze-, eraikitze-, handiagotze-, berritze- eta mantentze-erregimena Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsasoko Garraioaren 2/2018 Legean ezarritakoa izango da (ekainaren 28ko 2/2018 Legea).
Xedapenak	
Xedapen gehigarriak	Berriz idatzi dira xedapen gehigarriak:
Lehenengo xedapen gehigarria. Lurralde-antolamenduaren gidalerroen jarraipenerako memoria	1.- Bi urtean behin, lurralde-antolamenduan eskumena duen Sailak «Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen egoera» izeneko memoria bat eratuko du. Bertan lurralde-antolamenduaren gidalerroak zein neurritan aplikatzen diren, udal lurralde plangintzan duten eragina eta identifikatutako bat ez etortzeak ekiditeko hartu beharreko neurriak aztertuko dira. 2.- Aipatu memoria eratzeko metodologian kontuan hartuko dira: A) Gidalerroen aplikazioa ebaluazioaren aldia zehar onartutako lurralde-plan partzialen, lurralde-plan sektorialen eta plan orokorren bitartez. B) Lurralde- eta hirigintza-iraunkortasuneko adierazleen bilakaera neurtzeko azterketa kuantitatiboa epealdian zehar. C) Azterketa kualitatibo bat adierazgarriak diren eta Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatea ezagutzen duten pertsonen egindako galdetegi eta elkarrizketen bidez. 3.- Memoria eratzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek udalerrian indarrean dagoen plangintza orokorrak antolamenduko gidalerroekin eta lurralde-



	<i>plangintzarekin gordetzen duen egokitzapenari buruzko lurralde-antolamendu arloko balorazioa igorri beharko dute bi urtean behin eskumena duen sailera.</i>
Bigarren xedapen gehigarria. Araba Erdialdeko lurralde-plan partziala.	<i>Araba Erdialdeko eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala berrikustean honako zehaztapen hauek aintzat hartu beharko dira:</i> <i>1.- Araba Erdialdearen barnean, beren landa izaeragatik eta problematika espezifiko delako medio arreta berezia behar duten Arabako Ibarretako eta Arabako Mendialdeko eskualdeak bereizi eta nabarmentzea. Ondorio horietarako, berrikuspenaren diagnostikoaren aurreko fasean landa-eskualde horien gaineko hasierako oinarritzko azterlana idatziko da.</i> <i>2.- Hasierako oinarritzko azterlanak honakoak izango ditu barnean:</i> <i>A) Soluzioen proposamena lurralde-aniztasuna baterako garapenerako eragile gisa erabiliz, hartako baliabideak hedatu eta dinamizatzeko estrategiak zehaztuz.</i> <i>B) Landa-eskualdeetan kontuan hartu behar diren irizpide espezifikoak. Zehazki, haien egoera eta ezaugarri berezien haritik datozen berariazko premiak zehaztuko ditu, desorekak zuzentzeko estrategiak abian jarriko ditu, eta landa-garapen integraleko politikak ezartzea ahalbidetuko duen lurralde-tratamendua ezarriko du.</i>
Hirugarren xedapen gehigarria. Busturialdea-Artibaiko lurralde-plan partziala	<i>Busturialdea-Artibai eremu funtzionaleko lurralde-plan partzialak aurrez aurreko xedapen gehigarrian aipatutako azterlana egitea eskatu beharko du, kontuan hartuta, batetik, Busturialdea eta Lea-Artibai eskualdeak ongi egituratzaren erronka, eta, bestetik, Urdaibaiko eskualdearen espezifikotasuna, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko 5/1989 Legetik eratorritako lurralde-tratamendua eskatzen duena.</i>
Xedapen iragankorrak	Berriz idatzi dira xedapen iragankorrak:
Lehenengo xedapen iragankorra. Lurralde-plan partzialen eta lurralde-plan sektorialen doitze-epea.	<i>1.- Egun indarrean dauden lurralde-plan partzialak eta lurralde-plan sektorialak Dekretu honetan xedatutakora moldatuko dira indarrean sartu eta hurrengo hamar urteetako epean.</i> <i>2.- Moldaketa horri lantzen duen lurralde-planaren onarpenerako ezarritako prozedura aplikatuko zaio, eta planak lurralde-antolamenduko gidalerroekin gordetzen duen egokitzapenari buruzko berariazko atal bat sartu beharko du bere justifikazio-memorian.</i> <i>3.- Dekretu hau indarrean sartzen denean hasierako onarpena izapidetan duen lurralde-plangintzak ez du zertan moldaketa egin.</i> <i>4.- Lurralde-plan partzialak eta lurralde-plan sektorialak indarrean mantenduko dira haien moldaketarik ematen ez den bitartean.</i>
Bigarren xedapen iragankorra. Hirigintza-alorreko plangintza orokorra.	<i>1.- Indarreko plan orokorrak eta arau subsidiarioak Dekretu honetan xedatutakora moldatuko dira, eta baita indarreko lurralde-plangintzara, lehenengo xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat etorrira, beren berrikuspen integrala erkidegoko hirigintza-legeekin bat etorrira abiatzen dutenean.</i> <i>2.- Berrikuspen partziala xede duen hirigintza-plangintza bere helburu eta proposamenak Dekretu honetan ezarritakoan eragina duten neurrian moldatuko da.</i>
Hirugarren xedapen iragankorra. Hirigintza-alorreko plangintza orokorra tramitean.	<i>Dekretu hau indarrean sartzen denean hasierako onarpena izapidetan duen plangintza orokorrak ez du zertan moldaketa egin, nahiz eta bere ondoren hasierako onarpen berri bat adostu.</i>



Laugarren xedapen iragankorra. Bizitegi-kuantifikazioa udaletako hirigintza-plangintzan.	<i>Lurralde-plan partzialak gidalerro hauen aplikazioaren ondoriozko bizitegi-kuantifikaziora egokitu arte, udal-plangintzan honako hau hartuko da gehieneko bizitegi-ahalmentzat: indarrean dagoen lurralde-plan partzialaren ondorioz eta dekretu hau aplikatzearen ondorioz ateratzen diren gehieneko bi balioen artetik txikiena.</i>
Xedapen indargabetzailea.	Berriz idatzi da xedapen indargabetzailea. <i>Xedapen hauek indar gabe geratu dira:</i> 1.- 28/1997 Dekretua, otsailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak behin betiko onesteko dena. 2.- 68/2006 Dekretua, martxoaren 28koa, udal-plangintza Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroetara egokitzeko epea ezartzen duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren sententzia betetzeko. 3.- 4/2016 Dekretua, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen baita, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez.
Amaierako xedapena. Indarrean jartzea.	Berriz idatzi da amaierako xedapena. <i>Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean Dekretu hau.</i>
III. Sintesi-mapa	
	- <i>Kostaldeeii buruzko Legearen eragin-eremuaren lerroa sartu da.</i>
	- <i>Urdaibai-Areitio-Goierri-Arriola korridore ekologikoa sartu da.</i>
	- <i>Gasteiz eta Miranda Ebro arteko abiadura handiko linea zuzendu da.</i>
	- <i>Soraluzeko hirigune historikoa sartu da.</i>
	- <i>Tolosa eta Berastegi arteko eremu funtzionaletako buruen interkonexiorako errepidea sartu da.</i>



Ingurumen-azterlan estrategikoa

Aurkibidea	Egindako aldaketa
1 Sarrera	Testu berri bat sartu da apartatuaren azken lerrokadan: «Ingurumen-azterlan estrategiko honek, gainera, jendaurreko informazioaren izapideen eta kontsulten ondoren onartutako alegazioak hartzen ditu aintzat, eta EAEko lurralde-antolamenduaren gidalerroen berrikuspenaren behin-behineko onarpenerako dokumentuaren edukira egokitzen da (2018ko iraileko dokumentua)».
2 Edukiak, helburuak eta harremanak beste plan zein programekin	
2.2 LAGen berrikuspenak beste plan eta programa batzuekin duen harremana	
2.2.2 Bestelako plan, programa eta estrategia batzuk	«2013-2020 aldirako Osasun Plana» sartu da .
2.3 LAGen berrikuspenaren ondorioz proposatutako gai berriak	«Hasierako Onespen Dokumentua» testua kendu da eta ezabatu egin da eranskinaren zenbakiari egiten zaion erreferentzia.
2.4 Ingurumen-helburu estrategikoak eta LAGetan duten inplementazioa	«4. Helburu orokorra» taulan ingurumen-adierazle berri bat sartu da: «Berdeguneetako irisgarritasuna (azpiegitura berdea eta hirietako parkeak)».
3 Ingurumenaren gaur egungo egoeraren garrantzizko alderdiak	
3.3 Geologia, geomorfologia eta lurzorua	
3.3.3 Lurzorua	Laugarren lerrokadan testu hau gehitu da: «..., nekazaritza-jardueretan ere ondorioak dauzkana». Bosgarren lerrokadako azken esaldia ordezkatu da honako honengatik: «Hori dela eta, lurzoruen degradazioari eta beren nekazaritza-erabilerari lotutako aldagaien jarraipena egiteko, adierazle hauek proposatzen dira:» Adierazle berri bat sartu da: • Nekazaritza-azalera erabilgarria eta ustategiaren zenbakia
3.7 Natura-espazioak	EAEko korridore ekologikoen sarearen irudia eguneratu da azken proposamenarekin, Gobernuaren Ordezkaritzak aipatutako bi oztopo berriak sartuz .
3.8 Ekosistemen zerbitzuak	«Hasierako onarpen-dokumentua» testua ezabatu da .
3.11 Arrisku naturalak eta antropikoak	Zuzendu egin da «mendebaldekoa», eta «ekialdekoa» idatzi da.
3.12 Giza habitata	Testu berri hau sartu da: «Bestetik, asko dira hiri-eremuetako berdeguneen eskuragarritasunaren, irisgarritasunaren eta baldintzen eta osasun fisiko, mental eta gizarte-ongizatearen arteko harreman zuzena ezartzen duten argitalpenak. Berdeguneek osasunean eragiten dute, inguruan (airea, zarata mailak, klima) eta ohituretan



	(gizarte-bizitza, jarduera fisikoa) duten eraginaren bitartez. Adierazle berriak sartu dira: • 120 µg/m³ baino gehiagoko ozono maila troposferikoak jasaten dituen biztanleria-portzentajea • Berdeguneetarako sarbidea (azpiegitura berdea eta hirietako parkeak) 300 metro, 500 metro eta 1000 metrotara duen biztanleria-portzentajea. • Espazio libreen azalera biztanleko
4 Lurralde-antolamenduaren gidalerroen berrikuspenaren alternatibak	
4.4 LAGetako korridore ekologikoen proposamenaren eta gaurdaino onartutako lurralde-plan partzialetan jasotako proposamenen arteko alderaketa eta balorazioa	Lehenengo lerrokada: Kendu egin da parentesi arteko zatia, (Hasierako Onespenerako dokumentua). Bigarren lerrokada: 4. artikulua 4.6. izango da aurrerantzean:
5 Lurralde-antolamenduaren gidalerroek ingurumenean izan ditzaketen ondorio garrantzitsuak	«I. eranskina» kendu eta «II. eranskina» jarri da 5.3.1, 5.3.2, 5.3.3, 5.3.4, 5.3.5, 5.3.7, 5.4.2, 5.5.1, 5.5.2, 5.5.3 eta 5.6.1 apartatuetan.
5.3 Baliabide naturalak	
5.3.1 Eragina lotura ekologikoa	Zortzigarren lerrokadan kendu egin da «... espazio libreen eta berdeguneen sistema orokorrak eta tokikoak», eta hau idatzi da: «...hirigintza-plangintza orokor edo partzialak definitutako berdeguneak».
5.3.5 Eragina ingurune fisikoan (lurzoruak eta geologia)	Bosgarren lerrokadan testua zehaztu da: «Hidrokarburo ez-konbentzionalen eta haustura hidrauliko edo <i>fracking</i>aren kasuan zehazki, zorupearen konposizio-aldaketaren ondorioen gaineko zalantzak...»
5.3.6 Eragina Natura 2000 Sarean eta interes naturaleko beste eremu batzuetan	Korridore ekologikoen taula azken proposamenarekin eta natura-intereseko beste funtzio anitzeko espazioekin eguneratu da.
5.3.7 Zalantzak	Hirugarren puntuan kendu egin dira «lurzoru berrien» hitzak, eta hau idatzi da: «... jarduera ekonomikoen baliokidea den azalera eraiki bat (Aplikatzeko arauen 12.5.c artikulua)».
5.4 Baliabide estetiko-kulturalak	
5.4.1 Eragina paisaiaren kalitatean	19.6 artikulua (desagertua) Aplikatzeko arauen 20.6 artikulua ordezkatu du. Aplikatzeko arauen 25.5 artikulua (desagertua) erreferentzia ezabatu da. Deuseztatu egin da «oinezkoentzako nahiz ziklistentzako azpiegituren instalazioan ere (LAGak Aplikatzeko Arauak, 25.5. art.)»
5.4.2 Eragina ondare historiko-kulturean	22. artikulua Aplikatzeko arauen 23. artikulua ordezkatu du.
5.5 Baliabide berriztagarriak eta berriztaezinak	
5.5.1 Eragina balio agrologiko handiko	19. artikulua Aplikatzeko arauen 20. artikulua ordezkatu du.



	lurzoruan	
5.5.2	Eragina azaleko baliabide hidrikoetan	Lehen lerrokadan parentesi arteko «(LAGen 13. atala)» testua ezabatu da .
5.5.4	Eragina lurzoruan okupazioagatik (artifizializazioa)	Testu hau ezabatu da: Parentesi arteko «...(LAGen Hasierako Onespenerako Dokumentua, 12.2. eranskina)» ezabatu eta hau idatzi da: «...(LAGetako "Lurralde- eta hirigintza-jasangarritasuneko adierazleak")»
6	Ingurumen-integrazioarako neurriak	«Ingurumen Azterketa Estrategikoaren Irismena» erreferentziak ezabatu dira 6.2, 6.3 eta 6.4.3 puntuetatik.
6.4	Irismen-agirian landutako alderdiak	
6.4.4	Azpiegitura berdearen funtzionaltasuna	Bigarren lerrokadan 4.3.d artikulua kendu eta 4.3.c idatzi da.
7	LAGen aplikazioaren ondorioei buruzko ingurumen-ikuskaritza egiteko programa	
7.2	Ebaluatu beharreko aldagaiak eta betetzearen adierazleak	
7.2.2	Lurzoruaren babesak	Honako hauen adierazle berrien jarraipena sartu da : - Nekazaritza-azalera erabilgarria eta ustiategiaren zenbakia.
7.2.8	Giza habitataren kalitatea hobetzea	Adierazle berrien jarraipena sartu da : - 120 µg/m3 baino gehiagoko ozono maila troposferikoak jasaten dituen biztanleria-portzentajearen jarraipena - Berdegune batetik 300, 500 eta 1.000 metro baino gutxiagora bizi den biztanleria-portzentajearen jarraipena - Biztanleko espazio librearen proportzioaren jarraipena
8	Bibliografia	Hirigintza osasuntsuari lotutako iturri bibliografiko berriak sartu dira : EUSKO JAURLARITZA. OSASUN SAILA. 2013. Euskadirako Osasun Politikak 2013-2020. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. «IHOBE, EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILAREN SOZIALTATE PUBLIKOA. 2014. Osasuna eta hiri-garapen jasagarria. Tokiko hirigintzako ekimenek osasunean daukaten eragina aztertzeke gida praktikoa. Udalsarea 21»
10	Laburpen ez-teknikoa	
10.2	Zerikusia beste plan eta programa batzuekin	
10.2.2	Bestelako plan, programa eta estrategia batzuk	2013 - 2020 Osasun Plana sartu da
10.5	Ingurumen-integrazioa neurriak	«Hasierako onarpen-dokumentuari» egiten zaion erreferentzia ezabatu da .

